

BIZI BETE



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa

Bizi Bete. Isolamendua eta bakardadea prebenitzeko loturak sortzen

Proiektuaren helburua da talde jarduera baten bidez pertsonekin/pertsonak konektatzea, lotura egonkor eta esanguratsuak sortzeko, oraingo eta etorkizuneko isolamendua eta bakardade sentimendua prebenitu eta/edo arintzen laguntze aldera. Proiektua gauzatzen den inguruko boluntarioek burutzen dute jarduera, beharrezko laguntza teknikoarekin.

Proiektuaren arabera, auzo bateko adineko batzuk —beti berberak— astean behin elkartzen dira lokal batean. Bertan, jarduera errazak egien dituzte, kafea hartzen dute eta elkarrekin hitz egiten dute. Bakarrik bizi diren eta etxetik gutxitan irteten diren edo harremanetarako zailtasunak dituzten pertsonak gonbidatzen dira parte hartzera, jarduera bat egiteko eta tarte atsegin bat pasatzeko *aitzakiarekin*. Lokalak dauden auzoetako boluntario-talde egonkor batek bideratzen du jarduera, eta ahaleginak egiten ditu adinekoak hasiera-hasieratik ondo hartuak senti daitezen.

Ekimen honen funtsa ez dira jarduerak berak, baizik eta horien bidez adinekoei lagun egitea. Horretarako, boluntario bakoitzak adineko batekin edo birekin sortzen du lotura estua, eta hari/haiei eskaintzen die arreta berezia. Normalean etortzen diren adinekoetako batek huts egiten badu egunen batean, berarekin lotura estua duen boluntarioa harremanetan jartzen da harekin, zer gertatzen zaion jakiteko eta, behar izanez gero, laguntza eskaintzeko. Horrela, bada, 2013an lehen ekimena abian jarri zenetik, adineko batzuek laguntza onartu dute medikuarengana joateko; laguntza eskatu dute, telelaguntza zerbitzua edo mendekotasunaren balorazioa eskatzeko, edo egoitza batean sartzeko tramiteak betetzeko, edo taldeari deitu diote, zailtasun pertsonalen bat dutela jakinarazteko edo jarduerara ez joatearen arrazoia emateko. Halaber, adinekoen artean ere laguntza harremanak sortu dira (adibidez, batzuek egunero deitzen diote elkarri, proiektutik kanpo elkartzen dira edo Gabonak ospatzeko bildu dira).

Jardueraren asmoa da etxetik kanpo konfiantzazko harremanak sortzea, eguneroko giroan, gaur egunean atseginak izateaz gain, etorkizunean ere isolamendua prebenitzen lagun dezaketenak, adinekoa noizbait etxetik irten ezinik geratzen bada. Hori dela eta, ahalmen bikoitza du jarduerak: batetik, bakardade sentimenduaren aurkako esku hartze zuzena da eta, bestetik, etorkizuneko isolamendu arriskua prebenitzeko balio du. Izan ere, gaur egun dagoeneko

proiektura bertaratu ezin diren pertsona askok eutsi egin diote boluntarioekiko eta/edo beste adineko batzuekiko loturari, eta, zenbait kasutan, horrelako proiektuek beste baliabide propio batzuetara edo beste erakunde batzuen baliabideetara *sartzeko atea* ireki dute.

Laburbilduz, hauxe da aurkezten dugun proiektuaren xedea: komunitatearekin kontaktuan jarraitzeko aukera ematen duten harremanak sortu eta indartzea, onuradunak gutxiago parte hartzen duenerako edo parte hartzeari uzten dionerako, osasun arazoak, gogorik eza, mendekotasuna eta abar direla eta.

1. Erakunde sustatzaileak

Bilboko Elizbarrutiko Cáritas.

2. Erakunde mota

Pribatua.

3. Xede taldea

Adinekoak, kalera irten arren inguruneko beste baliabide edo ekimen batzuetan gutxi parte hartzen dutenak edo parte hartzen ez dutenak, harreman gogobetegarri berriak sortzeko zailtasunak dituztenak (gogorik ezagatik, ohitura faltagatik edo zerbitzuen ezaugarriengatik), bakarrik bizi direnak (zuzenean adierazi edo ez) eta abar. Lehentasuna dute aurreko ezaugarriez gain familiaren laguntza urria dutenak eta isolamendu arrisku handian daudenak.

4. Lurralde eremua

Bilbo (Bizkaia).

5. Egoera

Ezartzeko fasean.

6. Etiketak

Bakardadea, adinekoak, boluntarioria, komunitatea, parte hartzea.

7. Helburuak

Bizi Beteren helburu nagusia da harreman esanguratsuak sortu eta mantentzea komunitatean, hiri eremuan bizi diren adinekoen isolamendua eta bakardade sentimendua prebenitzen eta arintzen laguntzeko.

Helburu nagusi hori zehazten duten beste berariazko helburu hauek ditu proiektuak:

1. Leku eta jarduera egokiak jartzea beste baliabide batzuetan parte hartzen ez duten edo integratuta sentitzen ez diren adinekoen eskura.
2. Adinekoen bizi kalitatea hobetzen laguntzea, alderdi pertsonal, sozial eta afektiboari dagokienez. Izan ere, proiektura joatea lagungarria da ohitura batzuei eusteko (irteteko apaintzea, proiektuaren ordutegia kontuan hartzea...), norberarekin bizi ez diren pertsonekin (beste adineko batzuekin eta boluntarioekin) harreman eta lotura esanguratsuak sortzeko, estimatuta sentitzeko (arreta pertsonalizatuaren bidez), talde bateko kide eta bertan integratuta sentitzeko eta abar.
3. Isolamendu arriskuan dauden adinekoen parte hartze soziala sustatzea. Hain zuzen, sortzen diren loturek segurtasuna ematen dute eta beste espazio batzuetan parte hartzera animatzen dute.
4. Adinekoaren narriadura egoerak, arazoak edo premiak detektatzea eta horiek konpontzen laguntzea, nahi badute.
5. Lotura esanguratsuak eta konfiantzakoak sortu eta sendotzea komunitateko beste pertsona batzuekin, adinekoak komunitatean parte hartu ezin duenean beste modu batera mantentzeko.
6. Adinekoei lagun egitea, bakardadeak haiengan sortzen duen estigma gaindituta.

8. Metodologia

Adinekoak jarduera bat egitera eta kafea hartzera joaten dira; baina, horrez gain, harrera beroa, arreta pertsonalizatua eta harremanak errazteko laguntza ere aurkitzen dituzte.

Pertsonak biltzeaz gain, haien arteko lotura errazteko estrategiak sortzen dira (mahai txikiak, parte hartzaile egonkorak, entzute aktiboa, adierazitako kezken jarraipena, norbait azaltzen ez denean deitzea eta abar).

Alde batera uzten dira pertsonen arteko desberdintasunak —ezagutzen, gaitasunen eta abarren arlokoak— agerian jar ditzaketen jarduerak. Hori dela eta, elkarlanean oinarritutako jarduerak egitera jotzen da, irtenbide bakarreko jarduerak egitera baino gehiago (adibidez, igarkizunak asmatu beharrean, istorioak eraikitzea).

9. Alderdi berritzaileak

Cáritaseko Edadetuak eta Zahartzea arloak esperientzia luzea du adinekoen bakardadearen aurkako lanean, eta, horren bidez ikusi dugunez, gero eta zailagoa da, adinekoentzat, bakarrik daudela adieraztea eta bakardadearen aurkako laguntza eskatzea. Alde batetik, errua, lotsa, epaitua izatearen beldurra sorrarazten ditu bakardadeak; hau da, estigma. Bestetik, laguntza eskatuz gero, euren beharrak, autonomia galera eta eraman nahi duten bizimoduaren aldaketak agerian geratuko ote diren beldur dira adineko batzuk, batez ere laguntza etxean bertan jaso behar dutenean. Hori dela eta, Bizi Betek pertsonetikiko eta haien erabakiekiko erabateko

errespetua eskaintzen du (laguntza emateko prest dago, baina ez du laguntza inposatzen), eta etxetik kanpoko laguntzaren alde egiten du, «bakardadearen aurkako» proiektu batek sortzen duen estigma saihestea ahalbidetzen duen proposamen normalizatu baten bidez (adinekoen bilera bat).

Horiek horrela, proiektua BERRITZAILEA dela uste dugu, arrazoi hauengatik:

1. Pertsonen bila irteten garelako. Gizarte eta osasun zerbitzuekin elkarlanean jarduten dugu, baina beste bide batzuk ere jorratzen ditugu gure jarduera ezagutarazteko: leku jakin batzuetan (farmaziak, dendak eta abar) liburuxkak uztea; auzoan aldian aldiko jarduerak eskaintzea (solasaldiak, proiektzioak, ospakizunak eta abar), interesatuek ezagutu gaitzaten, konpromisorik hartzen ez badute ere; auzoko bestelako jardueretan parte hartzea, proiektuan parte hartzen duten pertsonen bidez beste pertsona batzuk gonbidatuz, eta abar.

2. Bakardadeak sortzen duen estigma saihesten dugulako. Bizi Betez hitz egiten dugunean, elkartzeko proiektua dela esaten dugu (eta ez bakardadearen aurkako proiektua); isolamendu larriko egoeran dauden pertsonekin egiten dugu lan, baina egoera hobean daudenak ere onartzen ditugu, harremanak aberasteko eta, batez ere, proiektua *ghetto* bihur ez dadin, eta, azkenik, auziari irekitako jarduerak egiten ditugu, eta hori lagungarria da proiektuan parte hartzea harrotasunez bizitzeko.

4. Zuzeneko esku hartzea egiten duten eragileak boluntarioak direlako, eta hori lagungarria delako harremanak bideratzeko. Izan ere, doakotasunean oinarritutako harremanak dira; beraz, adiskidetasunetik gertuago daude eta bestelako harremanen osagarri dira. Gainera, komunitateko bertako pertsonekin gauzatzen dira.

5. Epe luzeko inpaktua eta jasagarritasuna dituen proiektua delako:

- Egungo bakardadea ez ezik, etorkizuneko isolamendu arriskua ere murrizteko asmoa du Bizi Bete. Epe luzeko begirada duen proiektua da.
- Proiektuaren arreta ez da amaitzen pertsonak aurrez aurre parte hartu ezin duenean; aitzitik, mantendu egiten da, deiak eta bisitak eginez edota beste baliabide batzuetara bideratuz eta lagunduz.
- Pertsona askok beste batzuk aurkitzen dituzte proiektuaren bidez, eta proiektuaren esparrutik urrunago iristen diren adiskidetasun harremanak sortzen dira haien artean.
- Proiektuak laguntza profesionala eskaintzen du, boluntarioak prestatu, orientatu eta kontrastatzeko; horrela, autonomia handiagoa hartzen dute.

TRANSFERIGARRITASUNA

Bizi Beteren metodologia beste leku batzuetan ere erabil daiteke. Izan ere, Bilboko Irala auzoan lehen proiektua abian jarri zenetik (2013ko urtarrilean), beste hiru proiektu abiatu dira: Bilboko Zazpikaleetan, erdigunean eta Basaurin. Horiek guztiak jardunean jarraitzen dute, eta, egun, 125 lagunek baino gehiagok hartzen dute parte horietan. Gaur egun, Bizkaiko beste auzo eta udalerrri batzuetako egoera ari gara aztertzen, Bizi Bete horien errealitateari erantzun egokia eman diezaiokeen ikusteko.

PARTAIDETZA

Proiektuan parte hartzen duten pertsonen maiz galdetzen zaie horretan egiten diren jardueren buruz. Gainera, ikasturte bakoitzaren amaieran, ebaluazio dinamikaren bat egiten da, eta hurrengo ikasturterako proposamenak egin eta aintzat hartzen dira.

Bestalde, erantzunkidetasunean oinarritutako harremanak sortzen saiatzen gara; adibidez, gozoki lehiaketa bat egiten dugu, boluntarioek eta nahi duten adinekoek parte har dezaten. Batzuei eta besteei hilean euro bat jartzeko eskatzen zaie, proiektuaren gastuekin laguntzeko; dena den, era anonimoan egiten da, itsulapiko baten bidez).

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Boluntarioak hilean behin elkartzen dira, planteatutako jarduerak ebaluatzeko eta programatzeko eta parte hartzaileekiko esku hartzearen jarraipena eta kontrastea egiteko. Gainera, aurreko atalean esan dugunez, adinekoek ere hartzen dute parte ebaluazioan (ikusi eranskinean ebaluazio eredua, 2024ko ekainean haiekin batera egindakoa).

Hona hemen helburuak bete izanaren adierazleak:

- Parte hartzaileen gogobetetasun handia, formalki adierazitakoa (ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboen bidez).
- Oso txikia da proiektuan zuzenean parte hartzeari euren erabakiz uzten dioten pertsonen ehunekoa (normalean, gaixotasunagatik edo heriotzagatik gertatzen da).
- Askotan eusten zaio laguntzari zuzeneko parte hartzetik kanpo, edo bideratzen da pertsona beste baliabide batera.
- Pertsona batzuek laguntza jaso dute, telelaguntza zerbitzua izateko edo eguneko zentroan nahiz egoitzan sartzeko, haiek eskatuta.
- Boluntario taldeek egonkorrak izateko joera dute: baja gutxi izaten da (gehienetan, familia edo lanbide betebeharrekin, gaixotasunak edo adinak eragindakoak izaten dira) eta boluntario berriak sartzen dira, zereginarekiko gogobetetasunaren eta konpromisoaren adierazgarri.

Berrikitan, parte hartzaileek sumatutako bakardadea baloratzeko tresna erantsi diogu gure harrera eta jarraipen protokoloari.